

CARBON CLUB

- 2. Saria Torrejon de Ardoz-eko Abangoardiako Arteen I. Jaialdian.
- Hiru urtez National Theatre of London-ek antolatutako Watch This Space jaialdian parte hartu du.



CARBÓN CLUB *Markeliñe antzerki taldea*

- Ekoizpena.....3-4
- Talde artistiko teknikoa.....5
- Iruzkinak.....6
- Behar teknikoak.....7-10
- Konpainia.....11-12
- Kontaktua.....13

CARBON CLUB





“CARBÓN CLUB-ek” meategiko istorioa kontatzen du kabaret erritmora.

“CARBÓN CLUB”, hainbat gogoeta irekitzen dituen bizitzari buruzko metafora da: adiskidetasunaren balioa, patu tragikoa, bizitzeko ausardia, sakoneko lurra, hurbil ditugun gerrak, errebindikazio komunak... Baina, batez ere, lan duin eta neketsuan bizitza eman zuten heroi anonimo horiei mirespenez beterik eskainitako omenaldia da.

Meategiko legenda batek esaten du meategia hain dela iluna, itzalak ere haien jabeengandik galdu egiten direla.



**CARBON
CLUB**

Istorio honetako protagonistak galdutako itzal gisa ibiltzen dira meategitik. Halako batean, gale-rian, urrunean, kabaret klub zahar baten neoizko argiak ikusten dira abesti batekin batera: **“ Yo no maldigo mi suerte porque minero nací...”**

Eta abesti hori ardatz dramaturgiko gisa hartuz beraien balentriak kontatuz doaz, bizirik edo hilda dauden arduratu gabe. Komikoa eta tragikoa ikatz hauts artean nahastuta.

Ikuskizun horren soinu erritmoak, irudi ikusgarriak eta espazio inguratzaileek ikus-entzulearen zentzumenak eta emozioak pizten dituzte, **“Carbón Club”** ahazteko zaila izango den antzerki esperientzia bilakatuz.

Meatzari protagonista gaztea, negarrez ari da, mozkortuta, barran. Beste meatzari bat, hura ere mozkortuta, kontsolatzen saiatzen da. Garagardo pitxerra jaso eta topa egiten du: **“¡Compañeros! ¿Qué somos?” “Adiskideok! Zer gara gu?”** Eta denek erantzuten dute: **“ ¡Mineros!” “Meatzariak”**

CUADRO ARTISTIKO-TEKNIKOA

- **Izenburua:**.....Carbón Club
- **Zuzendaritza eta gidioia:**.. MARKELIÑE
- **Antzezleak:**..... Sandra Fdez. Aguirre
Aintzane Crujeiras
Itziar Fragua
Jon Koldo Vázquez
Iñaki Egiluz
Fernando Barado
- **Zuzendaritza teknikoa:**.....Paco Trujillo
Jon Kepa Zumalde
- **Jantzien diseinua:**..... Sole Carrile
Iñaki Egiluz
- **Atrezzoak:**Paco Trujillo
- **Eszenografia:**..... Paco Trujillo
- **Egitura:**.....Jon Kepa Zumalde
- **Argazkiak:**.....M^a Jose De la Hoz
Luis Antonio Barajas
- **Koordinazioa:**.....Iñaki Egiluz
- **Komunikazioa:**..... Gloria Hernandez
- **Diseinu grafikoa:**..... Itsaso Benedicto



IRUZKINAK

“Ohiko ekoizpen lana baino gehiago antzerkiko esperientzia da.

Landa gunetako meatzarien barruan badago zerbait dibertigarria, eta atsegina da jakitea ez dela soilik umore ingeles berotua. Entretenimendua paregabea da, Brokeback Mountain, The Full Monty eta Almodóvarren zenbait film gogora ekarriz. Ezer ez ulertzea ez da inoiz hain dibertigarria izan.”

Serena Kutchinsky, The London Paper

“Markeliñek hainbat intentsitatetako sentimendu tragikomikoen gorabeheran sartzen ditu bertaratutako guztiak.”

“Ikus-entzuleen artean nahastuta edo plataforma gainean, antzezleek badakite beraiek aritzen diren espazioek liluratuta uzten gaituztela.”

La teatral.com

“Muntaia indartsua, irudi zirraragarriak, ongi argiztatua, eszenografia finkoa eta mugikorra, antzeztutakoa hobeto ikusi ahal izateko, ongi aukeratutako play back-a, komikotasunaren arabera, eta indar handiko eszenak, barregarri direlako batzuetan eta tragiko direlako besteetan.”

**Lola Torres, Fiesta y Cultura aldizkarian
Leioako Azokari buruz**





BEHAR TEKNIKOEN FITXA

KONPAINIAK HONAKO HAU JARRIKO DU:

- Eszenatoki guztiak.
- Piroteknia guztia.
- 30.000 w argi
- 5.000 w soinu

ESZENATOKIA:

- Plaza edo gune zabala, 25 X 25 m-koa gutxienez, garbia eta zuhaitzik, eserlekurik, iturririk... gabea. Lurra laua ez bada konpainiari lurraren egoeraren eta ezaugarrien berri emango zaio, galtzada-harriak, malda...
- Kamioiarentzako sarrera (7 m luze, 2,8 m zabal, 3 m altu).

LANGILEAK:

- Elektrikari bat .
- Lau pertsona deskargatzeko eta muntaketako lanetan laguntzeko (konpainia heltzen den orduan izango dute hitzordua. Beraien lana 3 ordu ingurukoa izango da). Desmuntatzea eta karga, emanaldia amaitu eta gero (2 ordu). Guztira 5 ordu.
- Lan horiek egiteko falta den pertsona bakoitzeko, konpainiak 300 €-ko kalte-ordaina jasoko du, gehiegizko lanarengatik.
- Hamabost hesi.
- Emanaldiak irauten duen bitartean bi pertsona beharko dira. Pertsona horien zeregin nagusia ingurua zaintzea izango da, emanaldirako elementuak eta piroteknia pixka bat.

POTENTZIA:

- Ahal izanez gero, korrontearen hartunea 63 AMPERIOKO CETAK-en egingo da. 30.000 w-ko hartunea.
- Hori ez balego, bornetarako hartunea duen korrontearen koadroa (hiru fase, neutroa eta lurrerako hartunea). Edonola ere, inoiz ez emanaldia egingo den tokitik 10 metro baino gehiagora.
- Euria baldin bada, konpainiak ez du emanaldia eskainiko lurrerako hartunerik ez badago.


MUNTAKETA:

- Tokia garbi eta muntaketarekin zerikusirik ez duen edozein materialek eragindako trabarik gabe egongo da deskargatze lana hasi aurretik.
- Plazako argiztapen publikoa itzalita egongo da emanaldiak irauten duen bitartean.
- **Muntaketarako denbora:** 5 ordu .
- **Desmuntaketarako denbora:** 2 ordu.

OTROS:

- Ur botila kaxa bat.
- Ikuskizunean piroteknia erabiliko da.
- Udalaren baimena (beharrezkoa balitz).







KONPAINIA

1987an sortutako konpainia. Amorebieta-Etxano. Euskal Herria.

Markeliñek oso estilo pertsonalarekin sortzen ditu bere ikuskizunak. Egiteko era horrek, kode eszeniko pertsonala duten sorkuntza lan bitxiak, imajinazioz beteak, eta harri-garriak sortzen dituen talde gisa definitzen du taldea ikusle handien eta txikien aurrean. Eta beti ere antzezleen keinu lanean oinarrituz.

Eremu bakoitzean, Markeliñek hizkuntza propioa aurkitu du. Objektuei, estetikei eta hizkuntzei buruzko ikerketak aintzatespen garrantzitsuak eman dizkio antzerki munduan. Klean, espazio handiak erabiliz, gauaren magiaren babespean batzuetan, edo egun argiz besteetan. Musika da emozioen hari gidaria, aurpegi anitz dituzten istorioen bitartez ikusentzulea erakartzeko.

Keinuetan eta ikusmenean oinarritutako hizkuntzaren bilaketa horrek presentzia finkatua eman dio Markeliñeri antzerkiaren panoraman.

Azpimarratzekoa da Markeliñe konpainiak nazioarteko hainbat jaialditan hartu duela parte (Frantzia, Belgika, Holanda, Austria, Finlandia, Kroazia, Portugal, Irlanda, Mexiko, Kolonia, Hego Korea, Dominikar Errepublika, Ingalaterra,...).





Markeliñe taldea:

- **Zuzendaritza artistikoa:** Iñaki Egiluz, Joserra Martínez.
- **Zuzendaritza teknikoa:** Jon Kepa Zumalde, Paco Trujillo.
- **Antzezleak:** Sandra Fdez., Itziar Fragua, Fernando Barado, Jon Koldo Vázquez, Roberto Castro, Anduriña Zurutuza.
- **Kudeaketa eta komunikazioa:** Gloria Hernandez, Itsaso Benedicto.

Apdo. 141- 48340
AMOREBIETA - ETXANO
TEL .: +34 946733257
markeline@markeline.com

www.markeline.com

[Carbón Club bideoa](#)

